

ANEXO I
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO
DIDAKTIKOAREN EGOKITZAPENA

Urteko/ikasturteko programazio didaktikoaren egokitzapena
Adaptación de la Programación didáctica anual/de curso

| | | | |
|---|------------------------------------|---|-----------|
| ikastetxea: <i>centro:</i> | ABADIÑO BHI | kodea: <i>código:</i> | 015071 |
| etapa: <i>etapa:</i> | DBH | zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i> | 2.Maila |
| irakasgaia: <i>materia:</i> | MATEMATIKA | | |
| DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA | ZIENTZIAK | | |
| DIZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIA ELKARTUAK <i>competencias disciplinares</i> <i>básicas asociadas</i> | KONPETENTZIA MATEMATIKOA | | |
| irakasleak: <i>profesorado:</i> | MERTXE CUEVAS AINTZANE MENDIOLA | ikasturtea: <i>curso:</i> | 2019-2020 |

Zeharkako konpetentziak / *Competencias transversales:*

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.
3. Elkarbizitzarako konpetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.
5. Izaten ikasteko konpetentzia.

| helburuak <i>objetivos</i> | ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i> |
|--|--|
| 1. Banaka edo taldean, eguneroko bizitzatik ateratako problemak, beste zientzia batzuetakoak edo Matematikakoak planteatzea eta ebaztea, eta zenbait estrategia aukeratzea eta erabiltzea, ebazpen-prozesua justifikatzea, emaitzak interpretatzea eta egoera berrietan aplikatzea, gizarte-ingurunean modu eraginkorragoan jardun ahal izateko. | <p>1. Zenbaki osoak, zatikiak eta zenbaki hamartar eta ehuneko errazak behar dituzten kalkuluak egitea, horien propietate garrantzitsuenak erabilia eta erantzun zehatza edo gutxi gorabeherakoa behar den erabakita; horretarako, kalkulu mota egokiena segurtasunez aplikatzea (buruzkoa, algoritmoa erabiliz, kalkulagailua erabiliz).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ea bereizten dituen zenbaki motak: osoak, zatikiak eta hamartarrak; ea kalkuluak zuzen egiten dituen zenbaki horiek |

2. Matematikako ezagutzak aplikatzea eguneroko bizitzako gertaerei eta egoerei buruzko informazioak eta mezuak ulertzeko, balioesteko eta sortzeko, et beste ezagutzar- arlo batzuetan erabilgarriak direla jakitea.

3. Natura eta kultura ingurune-ko forma geometrikoak identifikatzea, elementuen, erlazioen eta propietateen ezagutza erabiliz, errealitatea deskribatzeko, eta ezagutza geometrikoak aplikatzea inguruan dugun mundu fisikoa ulertzeko eta analizatzeko, eta hari buruzko problemak ebazteko.

erabilia, bai buruz (algoritmoa erabiliz), bai kalkulagailuz, eta baita berretzaile arrunteko berreketak erabiliz ere.

- Ea lotzen dituen zatikiak zenbaki hamartarrekin eta ehunekoekin, eta ea ezartzen duen adierazpen horien arteko zenbakizko sarea.
- Ea behar bezala aplikatzen dituen propietateak, eragiketen hierarkia eta parentesien erabilera-arauak kalkulu errazetan.

2. Zenbaki osoekin, hamartarrekin eta zatikiekin batuketak, kenketak, biderketak, zatiketak eta berreketak egitea dakarten problemak ebaztea, kalkuluak egiteko baliabiderik egokiena erabilia, eta emaitza testuinguruari egokitzen zaion balioetsita.

- Ea, irakurrita, problemen enuntziatua ulertzen duen.
- Ea antzematen dituen datuak eta elementu ezezagunak problemaren enuntziatuan.
- Ea problemen ebazpenean jarraitu beharreko urratsak planifikatzen dituen.
- Ea behar bezala eta ziurtasunez egiten dituen problema ebazteko beharrezkoak diren kalkuluak, eta horretarako, ea aukeratzen duen baliabiderik egokiena.
- Ea interpretatzen dituen lortutako emaitzak eta ea egiaztatzen dituen.
- Ea argi azaltzen duen problema ebazteko erabili duen prozesua.
- Ea egiten duen hausnarketarik erabilitako prozesuari buruz, eta ea beste problemetan aplikatzen duen ikasitakoa.

3. Zenbakizko proportzionaltasun-erlazioak eta geometria-erlazioak identifikatzea, eta eguneroko bizitzan proportzionaltasunarekin lotutako problemak ebazteko erabiltzea.

- Ea identifikatzen duen bi magnituderen arteko zenbakizko proportzionaltasun-erlazioa (zuzena zein alderantzizkoa) hainbat testuingurutan.
- Ea dakien kalkulatzeko zenbakizko proportzionaltasun-arrazoia.

4. Kalkuluak eta iritzirako kalkuluak (zenbakizkoak, metrikoak, etab.) segurtasunez eta konfiantzaz egitea, egoera bakoitzean prozedura egokienak (buruzko kalkuluak, idatzia, kalkulagailua ...) erabiliz, bizitzako egoerak interpretatzeko eta balioesteko, eta emaitzak sistematikoki berrikustea.

5. Beren adinerako egokiak diren eta emaitzak eta ondorioak argi eta garbi eta koherentziaz justifikatzeko eta aurkezteko norberaren pentsamendua adieraztea errazten duten hizkuntza arrunteko eta hizkuntza matematikoko elementuak (zenbakiak, taulak, grafikoak, irudiak) erabiliz, arrazoitzea eta argudiatzea.

- Ea ebazten dituen zenbakizko proportzionaltasunarekin lotura duten problema-tipoak
- Ea aplikatzen dituen behar bezalako estrategiak (taulak, proportzionaltasun-arrazoia, unitatetan adieraztea, etab.) proportzionaltasunarekin lotura duten problemak ebazteko.
- Ea identifikatzen dituen antzeko irudiak, eta ea kalkulatzeko duen antzekotasun-arrazoia.
- Ea aplikatzen duen Talesen teorema, eta ea erabiltzen duen triangeluen arteko antzekotasuna problema geometrikoak ebazteko.

4. Hizkuntza aljebraikoa erabiltzea sinbolizatze eta orokortzeko, eta lehen mailako ekuazioen planteamenduan eta ebazpenean integratzea, hizkuntza-ezaguera hori problemei ekiteko eta horiek ebazteko nahitaezko tresna gisa erabilia.

- Ea kalkuluak egiten dituen adierazpen aljebraiko errazekin.
- Ea lortzen dituen formula eta termino orokorrak jarraibideei erreparatuta eta erregularitasunak abiapuntu hartuta.
- Ea kalkulatzeko duen adierazpen aljebraiko baten zenbakizko balioa.
- Ea ebazten dituen lehen mailako ekuazioak.
- Ea hizkuntza aljebraikoan ematen dituen lehen mailako ekuazio baten bitartez adieraz daitezkeen egoerak.
- Ea emaitzak problemaren testuinguruan interpretatzen dituen, jarraitutako prozesua azalduz, arrazoibide zuzenen bidez eta ea balioesten dituen lortutako emaitzak koherenteak diren ala ez

5. Espazioen eta objektuen luzera, azalera eta bolumenak estimatzea eta kalkulatzeko, egoerak eskatutako zehaztasuna kontuan hartuta; estimazioaren edo kalkuluaren emaitza neurri-unitate egokienean adieraztea; neurketa-prozesuak ulertzea eta inguruko problemak ebazteko horiek aplikatzea.

- Ea aplikatzen dituen irudi eta gorputz geometriko garrantzitsuenen (triangelua,

6. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (kalkulagailuak, ordenagailuak, etab.) behar bezala erabiltzea kalkuluak egiteko, denetariko informazioak bilatzeko, tratatzeko eta adierazteko, bai eta Matematika ikasten laguntzeko ere.

7. Matematikak eguneroko bizitzan duen zeregina balioesteak, hura erabiliz gozatzea, eta Matematikako jardueraren moduen eta jarreraren balioa bereiztea; esate baterako, aukerak aztertzea, hizkuntzaren zehaztasuna edo malgutasuna eta soluzioak bilatzen iraunkorra izatea.

8. Matematika kulturaren parte dela balioesteak, hura erabiliz gozatzea, Matematikako jardueraren moduen eta jarreraren balioa bereiztea, eta eskuratutako

laukizuzena, zirkunferentzia, zirkulua, prisma, piramideak, zilindroa, konoa eta esfera) perimetroak, azalerak eta bolumenak kalkulatzeko formulak, zeini berari dagokiona.

- Ea Pitagorasen teorema aplikatzen duen neurketarekin zerikusia duten problemak ebazteko.
- Ea neurketekin lotutako problemak ebazteko prozedura informalak edo /eta akademikoak erabiltzen dituen

6. Problemak ebaztea modelo heuristiko bat erabiliz: enuntziatua aztertuz, estrategia egokiak aukeratuz (saiakuntza-errorea, problema errazago bat ebaztea, problema txikiagotan banatzea, eskema bat marraztean, etab.) beharrezko kalkuluak eginez, lortutako emaitza egiaztatuz,, eta, norberaren mailarako egokia den hizkuntza matematikoa erabiliz, ebazpenean zer prozesuari jarraitu zaion adieraziz.

- Ea problema irakurtzen eta ulertzen duen, eta proposatutako datuak eta ezezagunak identifikatzen dituen.
- Ea problema ebazteko zenbait estrategia heuristiko dakizkien eta aplikatzen dituen.
- Ea problema ebazterakoan zenbait aukera aztertzen dituen, arrazoibide zuzenen bidez balioesten dituen eta prozesuan zehar aldatzeko aukera izaten duen.
- Ea soluzioa egiaztatu, testuinguruan interpretatu, jarraitutako prozesuari buruz hausnartu eta beste problema batzuk ebazteko baliagarriak diren ondorioak ateratzen dituen.
- Ea lortutako emaitzak jakinarazten dituen, hizkuntza argi bat erabiliz eta beharrezkoa denean txosten edo dokumentu digitalak eginez.

7. Matematika-jarduerarekin lotutako jokabideak sistematikoki balioesteak eta jokabide horien arabera jardutea; esate baterako, jakin-mina izatea, saiatua izatea eta nork bere ahalmenetan konfiantza izatea, ordena izatea eta ebazpide-emaitzak sistematikoki berrikustea. Halaber, taldeko lanetan integratzea eta helburu komuna

| | |
|--|--|
| <p>Matematikako konpetentziak aplikatzea, zenbait fenomeno sozial analizatzeko eta balioesteko; esate baterako, kultura-aniztasuna, ingurumena errespetatzea, osasuna, kontsumoa, genero-berdintasuna edo bizikidetzak baketsua.</p> | <p><i>lortzeko parte hartzea gainerako iritziak errespetatuz eta ikaskuntza-iturritzat hartuz.</i></p> <ul style="list-style-type: none"> ● Ea dakien matematika-eragiketak eta prozedurak jakitea garrantzitsua dela, horiek direlako eguneroko bizitzako eta eskolako problemak ebazten laguntzen duten tresnak. ● Ea interesik duen lan egiteko, eta ea saiatua eta ekina den lanean. ● Ea emaitzak ordenatuta, argi eta txukun aurkezten dituen. |
|--|--|

ARAZO EGOERA [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguararen daturik errelenbanteenak agertuko dira.].

SITUACIÓN PROBLEMA [Incluirá los datos relevantes del contexto, el problema y la tarea final de cada una de las situaciones.].

| |
|---|
| <p>UNITATE DIDAKTIKOA- ARAZO EGOERA: (GEOMETRIA, TALDE LANA, EGITURA KOOPERATIBOAK eta IKTak ERABILITA)</p> <p>Helburua: Ikaslearen gelaren berritze lanen kostuaren kalkulua egitea da. Horretarako egin beharreko lanak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Aztertzea egin beharko liratekeen lanak: hormak margotu, altzariak aldatu, zoru berria ipini eta abar. 2. Beharrezkoak diren neurketak egin aurrekontuak eskatu ahal izateko. 3. Bilatu materialen kostuaren inguruko informazioa. 4. Txostena idatzi espazio bakoitzak behar duen lanak zehaztuz. 5. Erantsi informe horretan lan guztizko aurrekontua. |
|---|

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje...].

| |
|---|
| <p>Eduki komunak.</p> <p>Problema ebaztea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Problema ebazteko heuristiko ohikoenak: proba/errorea, problema errazago bat ebaztea, problema bera problema txikiagotan zatitzea, problema berriz formulatzea, taulak erabiltzea, zenbaketa zehatza, egoera aldatzea, diagramak edo marrazkiak. ✓ Zenbakizko jarraibideekin, jarraibide alfanumerikoekin edo geometrikoekin zerikusia duten problema ebaztea. ✓ Problema ebazteko erabilitako prozesua ahoz azaltzea. ✓ Prozesuaren arrazoibidea eta emaitzak egiaztatzea. ✓ Kalkulagailuak, buruzko kalkuluetako estrategiak sortzeko. |
|---|

Jarrerak:

- ✓ Problemen soluzioa bilatzen saiatua eta malgua izatea; erabilitako prozesua eta lortutako emaitzak txukun eta argi aurkezteko ardua izatea.
- ✓ Eguneroko bizitzako egoerei aurre egiteko matematikak garrantzi handia duela jakitea eta balioestea; eta zenbait gizarte-arazo aztertzea, problemaren beraren eta ondorioen aurrean jarrera kritikoa izanda.
- ✓ Talde-lanaren garrantzia aintzat hartzea, problemak ebazterakoan ideiak iradokitzeke eta ideiei kontra egiteko oinarritzko elementu gisa.

1.Ebaluazioa:**1. gaia: Zenbaki osoak**

- ✓ Zenbaki osoak. Zenbakizko zuzenean adieraztea. Zenbaki osoen arteko eragiketak. Zeinuen araua.
- ✓ Eragiketen hierarkia eta parentesiak erabiltzeko arauak kalkulu errazetan.
- ✓ Zatigarritasuna, multiploak eta zatitzaileak. Zenbaki lehenak eta konposatuak. Faktore lehenetan deskonposatzea. Zatitzaile komunetan handiena eta multiplo komunetan txikiena.

2. gaia: Zatikiak

- ✓ Zatikien esanahiak eta horiek nola erabili.
- ✓ Zatiki baliokideak
- ✓ Zatikien alderaketa
- ✓ Zatiki-eragiketak: batuketak, kenketak, biderkadura eta zatidura. Zatikiekin problemak ebazti.

3. gaia: Berreketak eta erroak

- ✓ Berretzaile arrunteko zenbaki osoen berreketak.
- ✓ Zatikien berreketak
- ✓ Berreketen arteko eragiketak. Idazkera zientifikoa, zenbaki handiak adierazteko.
- ✓ Erro koadroak. Zatikien erro koadroak.
- ✓ Eragiketa konbinatuak

2. Ebaluazioa:**4. gaia: Zenbaki hamartarrak**

- ✓ Zenbaki hamartarrak. Hurbilketa eta iritzirako kalkulua. Zenbaki hamartarren arteko eragiketak
- ✓ Zatikiak eta zenbaki hamartarrak
- ✓ Erro koadroa. Hurbilketa hamartarra
- ✓ Idazkera zientifikoa

5. gaia: Aljebra

- ✓ Hizkuntza aljebraikoa, propietateak orokortzeko eta erlazioak sinbolizatzeke. Formulak eta termino orokorrak, jarraibideak eta erregulartasunak oinarri hartuta.
- ✓ Aldagaiari balio jakin bat eman eta adierazpen aljebraikoaren zenbakizko balioa kalkulatzeko.
- ✓ Monomioak eta polinomioak. Eragiketa konbinatuen ebazpena.

6. gaia: Lehen mailako ekuazioak

- ✓ Lehen mailako ekuazioak. Esanahia eta elementuak.
- ✓ Lehen mailako ekuazioak ebazteke jarraibideak. Ebazpena interpretatzeko.

8. gaia: Proportzionaltasuna

- ✓ Zatikien, hamartarren eta ehunekoen arteko erlazioak. Erlazio horiek nola erabili kalkulu-estrategiakosatzeke (buruzkoa, idatzia edo kalkulagailua erabilia).
- ✓ Proportzionaltasun zuzena eta alderantzizkoa. Taulen azterketa. Proportzionaltasun-arrazoia. Igoerak eta beherapenak ehunekoetan. Igoerak eta beherapenak ehunekotan. Eguneroko bizitzako problemetan nola erabili.

3. Ebaluazioa EGOKITZAPENA

Egungo egoera dela eta, ebaluazioaren gutxieneko helburuak eta edukiak moldatu ditugu eta horrelaxe landuko dira/*Debido a la situación actual los objetivos y contenidos de esta última evaluación se trabajarán de la siguiente manera:*

- Ikasturtea bukatu arte, 8.gaiari bukaera eman eta 10. unitateekin eta oinarrizko edukiak erreparatuz jarraituko dugu lanean online saioetan, (berreskuratzeko dauden ikasleekin jarraituko den prozedura, beheko oharretan adierazi dugu) / *hasta la finalización del curso seguiremos trabajando las unidades 8 (última parte) y 10, además de actividades de repaso, en las clases online (Las recuperaciones se explican más abajo, en las observaciones)*
- Udako txostena eta iraileko erreparoa **kurtsoko gutxiengoak (3.ebaluazioarenak barne)** sendotzeko izango da. / *el dossier de verano y el repaso de septiembre servirán para consolidar los mínimos incluidos los de la 3ª evaluación.*

EDUKIEN SEKUENTZIA/secuenciación de contenidos

10.gaia: Irudi lauak

- ✓ Irudiak planoan: triangeluak, laukiak eta beste zenbait poligono.
- ✓ Elementuak eta ezaugarriak. Propietateak deskribatzea eta horiei buruzko neurketa zuzenak eta zeharkakoak.
- ✓ Pitagorasen teorema.
- ✓ Irudi lauen azalerak eta perimetroak
- **PROBLEMAK EBAZTEA**

Egunerako bizitzako egoerarekin lotutakoak, Pisa probak...

UDAKO TXOSTENA ETA IRAILA/dossier de verano y septiembre

Kurtsokoaren birpasoa eta 3. ebaluazioarenak

Urtean zehar (3.ebaluazioa barten) landutako gaiekin txosten bat prestatuko zaie gai horietako ariketak eta problemak erreparatu ahal izateko. / *Se les preparará un dossier con los temas trabajados durante el curso (3ª evaluación incluida) para poder repasar los ejercicios y problemas.*

Irailean birpaso orokorra egin eta 9,11 eta 12. uniteen minimoak landuko dira./*En septiembre se realizará un repaso general y se trabajarán además los contenidos mínimos de los temas 9, 11 y 12 del libro.*

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado... desde una perspectiva inclusiva].

BALIABIDE DIDAKTIKOAK. EGOKITZAPENA

Classroom bitartez ari gara klase ematen. Lanak normalean hor partekatzen ditugu ikasleekin. Bideo- konferentziak egiteko, Google meet edo jit.si baliabideak erabiltzen ari gara. / *Se imparten las clases en Classroom y es ahí donde se entregan las tareas normalmente. Para las vídeo-conferencias utilizamos Google meet o la aplicación jit.si*

Udako txostena eskaneatu eta Classroomen jarriko dugu. Beraiek, **koaderno** batean(edo drivean) egingo dituzte lanak. /*Escanearemos el dossier de verano y lo pondremos en classroom. Los/as alumnos/as harán las tareas en un **cuaderno (edo drivean)***

Eskolako ikasle guztiek dute aukera online lana egiteko. Arazoren bat egonez gero aurrerago, fotokopiak bidaliko dizkiegu. *Todos/as los/as alumnos/as pueden trabajar online. En caso de haber algún problema se les darán fotocopias.*

BESTE BALIABIDE BATZUK/OTROS RECURSOS

- *Testu liburua / Libro de texto (Matematika akademikoa (Ebatzi saila) 2DBH- Zubia/Santillana argitaletxekoa)*
- *Kurtsoan zehar banatutako txostenak / Dossieres repartidos durante el curso.*
- *Klaseko classroomean dituzten materialak /materiales que tienen en el classroom de clase.*

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...] **EGOKITZAPENA**

INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN

*[pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portfolio, contrato didáctico...]. **ADAPTACIÓN***

- **Online klaseetara konektatzea**
- **Testu liburuaren ariketak eta Classroomen bidalitako lanen kontrola.**
- **Unitate bakoitzeko online frogak**
- **Irailean egingo den hasierako frogak**

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa] **EGOKITZAPENA**

-1go eta 2,ebaluazioko notak izango du pisu gehien. Horretaz gain, 3.ebaluazioko lan guztiek nota hori igotzeko erabiliko dira.

**Hala ere, 1go eta 2.ebaluazioko notan eragina izan dezake 3.ebaluazioan lan gutxi egiteak, klaseetara ez konektatzeak... justifikazio gabe.

-Berreskurapenak gaitzen duten ikasleek 5 kalifikazioa izango dute.

Lanak epean entregatzea, lanen kalitatea, online frogen emaitzak eta ikaslearen jarrera eta interesa hartuko dira kontuan 1go eta 2. ebaluazioetako batzbesteko nota igotzeko edo jeisteko orduan.

| | |
|---|---|
| <p><u>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN ADAPTACIÓN</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ● <i>Conectarse a las clases online</i> ● <i>Las tareas del libro de texto y de Classroom.</i> ● <i>Prueba online de cada unidad.</i> ● <i>Prueba de evaluación inicial en septiembre</i> | <p><u>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN ADAPTACIÓN</u></p> <p>-Las notas de la 1ª y 2ª evaluación tendrán el mayor peso. El trabajo de la 3ª evaluación se tendrá en cuenta para subir nota.</p> <p>No obstante, influirá en la nota final el hecho de que el/la alumno/a no haya trabajado durante la tercera evaluación o no se haya conectado a las clases sin justificación aparente.</p> <p>-Las/os alumnas/os que recuperen la 2ª evaluación obtendrán 5 como calificación.</p> <p>-Desde el 13 de marzo:</p> <p><i>La entrega de tareas en el plazo fijado, la calidad de los trabajos, las notas de las pruebas online y el interés y actitud serán lo que tendremos en cuenta a la hora de subir o bajar la media obtenida entre la 1ª y 2ª evaluación.</i></p> |
| <p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...]. <u>EGOKITZAPEN</u></p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación...]. <u>ADAPTACIÓN</u></p> <p>1go eta 2.ebaluazioko helburu eta edukiak hartuko dira kontuan ikasturtea gainditzeko. Beraz, hauxe izango da ikasleentzako <u>berreskurapen sistema / Ya que los objetivos y contenidos evaluables del curso 19-20 se han reducido a la 1ª y 2ª evaluación, el sistema de recuperación para el alumnado es el siguiente:</u></p> <p>1go eta 2. Ebaluazioak berreskuratzeko irizpideak: (GUTXIENGOetan oinarrituta):</p> <p>a) 2. Ebaluazioaren errekupeazioa: Txosten bat emango zaie ebaluzioan zehar landutako edukiak errepasatzeko eta on-line azterketa egingo zaie.</p> <p>b) 1go ebaluazioaren errekupeazioa:</p> <p>b.1) 1go ebaluazioa bakarrik dutenentzat: Txosten bat emango zaie ebaluzioan zehar landutako edukiak errepasatzeko eta azterketa egingo zaie.</p> <p>b.2) 1go eta 2. ebaluazioak dituztenentzat:</p> <p>b.2.1) 2. ebaluazioa <u>GAINDITZEN</u> badute eta <u>1go ebaluazioa PENDIENTE:</u> Txosten bat emango zaie ebaluzioan zehar landutako edukiak errepasatzeko. Ondo eginez gero, gaindituta izango dute 1go ebaluazioa.</p> | |

b.2.2) 2. ebaluazioa EZ badute GAINDITU eta 1go ebaluazioa PENDIENTE:
Ekainean beste aukera bat emango zaie, azterketa “globala” egiteko (1go eta 2. ebaluazioaren minimoak)

Criterios para la recuperación de la 1ª y 2ª evaluación (basada en MÍNIMOS)

a) *Recuperación de la segunda evaluación: Se les repartirá un dossier para repasar lo trabajado en la evaluación y se les realizará un exámen on-line.*

b) *Recuperación de la 1ª evaluación:*

b.1) *Los que sólo la 1ª evaluación:*

Se les repartirá un dossier para repasar lo trabajado en la evaluación y se les realizará un exámen.

b.2) *Los que tienen la 1ª y 2ª evaluación:*

b.2.1) *Si APRUEBAN la 2ª evaluación y tienen PENDIENTE la 1ª evaluación:*

Se les repartirá un dossier para repasar lo trabajado en la evaluación. Si lo hacen bien, aprobarán la 1ª evaluación.

OHARRAK / OBSERVACIONES

Momentuz ez dakigu aurrez aurreko azterketak egiteko aukerarik izango dugun ala ez, beraz ez dugu aukera hau baztertu ikasle batzuen egoerak horrela eskatzen badu. / *De momento no sabemos si tendremos opción de realizar exámenes presenciales, por ello no descartamos la opción si la situación de algunos alumnos lo requiriera.*

Ohiko deialdian gaindituko ez balute, ezohiko deialdian aukera izango dute gainditzeko. / *Si no aprobaran en la convocatoria ordinaria, tendrán la opción de aprobar en la extraordinaria.*

PENDIENTEAK / EGOKITZAPENA

Ikuskaritzaren informazioaren zain gauden bitartean, momentuz, ezin izango dugu modu presentzian azterketarik egin. Beti bezala, landu dituzten txostenen inguruko frogak bat izango da. / *Mientras esperamos la información de inspección, no podremos hacer exámenes de modo presencial. Como siempre, será una prueba sobre los contenidos trabajados en el dossier repartido.*

Zentrura bueltatzeko aukerarik ez badago, frogak era digitalean egingo da, txostenetako edukiak, hau da, aurreko ikasturteko edukiak, bereganatu diren edo ez ziurtatu ahal izateko. / *Si no hay opción de volver al dentro, la prueba se realizará de forma digital, para poder*

comprobar si se han adquirido los contenidos trabajados en el dossier, es decir, los contenidos del curso anterior.